

ESKU-HUSKA. Bikote galtzaileak oso zaila du sailkatzea, lehen bi partidak galdu ondoren

Gogoz hasi dira Berasaluze eta Beloki, Titin III.a eta Zezeagari 22-16 irabazita

Bi aurrelariak ikuskizun aparta eskaini zuten; Beloki erraz nagusitu zitzaion Zezeagari atzean

Julen Etxeberria | DONOSTIA

Berasaluzek eta Belokik gogoz ekin diote aurtengo Eskuz Bina-kako Txapelketari. Atzo, Mungian (Bizkaia), Titin III.a-Zezeaga bikotea zuten aurrean. Errioxarrak eta gipuzkoarrak porrot mingarria jaso zuten txapelketako lehen jardunaldian, Unanue eta Peñagarikanoren aurka, eta hori ahaztu eta garaipenaren bidera itzultzeko asmo garbiarekin irten ziren atzo frontoira. Berasaluzek eta Belokik, halere, ez zieten inolako aukerarik eman, eta nahiko erraz hartu zituzten mendean, 22-16. Atzoko porrotarekin Titin III.ak eta Zezeagak oso zaila dute hurrengo faserako sailkatzea.

Partidako lehen tantoak parekatuak izan ziren. Titin III.ak eta Berasaluzek lehia oso polita zuten aurrean, eta atzean Beloki eta Zezeaga ere ongi ari ziren. Bosnako berdinketarekin Berasaluzek hiru tanto egin zituen jarraian, lehen aldiz alde majoa lortuta. Berrizko aurrelari txikiaren erakustaldia ez zen horretara mugatu, eta 6-9koarekin beste lau tanto egin zituen jarraian, sakez eginiko bi tartean.

Zazpi tantoko aldearekin garaipenak ezin zien ihes egin Berasaluze eta Belokiri. Titin III.a gogotik saiatu zen, baina atzo ez zuen Zezeagaren laguntza izan. Uberako atzelariak eskuin eskuiko kailoa bigun samarra zuen oraindik, eta hori asko nabaritu

TITIN-ZEZEAGA **16**
BERASALUZE-BELOKI **22**

Iraupena: Partidarena: 74 min.
Pilotakadak: 653.
Saketik: Titin III.ak 2 eta Berasaluzek 4.
Markagailua: 0-2, 2-2, 3-2, 3-3, 3-5, 5-5, 5-8, 6-8, 6-13, 10-13, 10-14, 11-14, 11-15, 12-15, 12-17, 13-17, 13-18, 14-18, 14-20, 16-20 eta 16-22.
Bestelakoak: Mungiaiko San Antontxu jaiak izanik, herriko pilotalekua leporaino bete zen. Jendeak txaloekin agurtu zituen bi bikoteak. 7-13koarekin Titin III.ak eta Berasaluzek talka egin zuten. Aurrelari errioxarrak eskuan hartu zuen min, eta bizkaitarrak eskuineko hankan.

zen atzo, Beloki erraz nagusitu baitzitzaion. Azkenean, Berasaluze eta Belokik irabazi zuten. Txapelketa hasiera bikaina, zalantzarik gabe.

Iazko finaleko kitarakoa gaur, Arrasaten

Iazko Eskuz Binakako Txapelketako finaleko kitarakoa jokatuko dute gaur Xala-Lasa III.ak eta Olaizola I.a-Patxi Ruizek, Arrasateko Uarkapeko pilotalekuan, arratsaldeko 17:00etatik aurrera (ETB1). Gaurko partida polemikarekin dator, iazko bikote irabazleak lehiarako aukeraturako materiala gogor salatu baitu.

Bihar, aldiz, Unanue-Peñagarikanok eta Agirre-Barriolak



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Pablo Berasaluzek partida bikaina egin zuen atzo.

jokatuko dute, Azpeitian, arratsaldeko 17:30ean. Bi bikoteak sasoi onean iritsi dira, txapelketako lehen jardunaldian garaipena lortu baitzuten. Herenegun aukeratu zituzten pilotak,

eta Unanuek eta Peñagarikanok 105,6, 105,9 eta 105,6 gramoko pilotak aukeratu zituzten. Agirrek eta Barriolak, aldiz, 105,1, 106,2 eta 104,8 gramokoak aukeratu zituzten.

kagailuan aurretik jartzeko. Begino, halere, pixkanaka-pixkanaka lasaitzen joan zen, eta pilota ondo jotzen hasi. Horrela, partida erdira berdinduak iritsi ziren, 10-10.

Garaileak suspertu eta Goñi II.aren huts nabariak

Esain eta Begino nagusitzen hasi eta aurretik jarri ziren markagailuan: 14-11 eta 16-12. Alde erabakigarria zela zirudien, baina Goñi II.ak eta Elkorok ez zuten amore eman, eta hamaseina eta hamazazpina berdindu zuten. Goñi II.a agertu zen orduan, baina ez ikusleek gustuko duten Goñi II.a, huts ulertezinak bata bestearen atzetik egiten dituen baizik. Tantoa erabakitzeke bi pilota huts egin zituen, eta merezitako garaipena oparitu zien Esain eta Beginori.



IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

Mikel Goñi.

munduko jokoa egin gabe. Lehen tanto horietan Begino urduri aritu zen, eta berak eginiko hutsak ondo aprobetxatu zituzten Goñi II.ak eta Elkorok mar-

droetan, eta, egia esan, Burlatako aurrelariari emaitza ezin hobe eman zion, errepikatzeke modukoa, zalantzarik gabe, Auzako atzelari gaztea bikain aritu baitzen.

Espero zen bezala, partidako lehen erdian Goñi II.a eta Elkorok izan ziren nagusi, baina beste

ESKU-HUSKA

Lau t'erdiko ofizialeko finalerdia gaur, Najeran: Errandonea I.a-Salaberri

Lau t'erdiko Txapelketako ofizialeko bigarren finalerdia jokatuko dute gaur, Najeran. Besagaingo pilotekin eta Espainiako Federazioaren babesean ari dira jokatzen txapelketa, eta Inaxio Errandoneak eta Javier Salaberrik jokatuko dute gaurko finalerdia. Irabazleak Fernando Arretxe du zain finalean.

ERREMONTEA

Binakako Txapelketako bigarren itzulia hasi da

Binakako Txapelketako bigarren itzulia hasi zen atzo. Galarretan, Altuna I.a-Eizagirrek, Iñigo-Lekunberrik eta Agirresarobe-Badiolak irabazi zuten. Euskalen, aldiz, Altuna II.a-Etxabek, Zeberio I.a-Txikurik eta Iturralde-Ekizak irabazi zuten. Elizalde-Txikuri eta Bitoria eta J.Etxeberriaren arteko lehia bertan behera geratu zen, Elizaldekin min hartu baitzuen.

JAIALDIK

ATZOKO EMAITZAK MUNGIA.

Bigarren Mailako Binakako Txapelketa: Barberito-Urberuaga 7; Badiola-Laskurain 18. Binakako Txapelketa Nagusia: Titin-Zezeaga 16; Berasaluze-Beloki 22. Baleztena-Eulate 10; Azpiroz-Bengoetxea 22.

GALARRETA.

Juaristi-Barrenetxea II.a 35; Larrea-Lander 23. Binakako Txapelketa: Zeberio II.a-Aizpuru 24; Altuna I.a-Eizagirre 40. Iñigo-A. Lekunberri 40; Matxin-Lizaso 23. Sarasua-Aizpuru II.a 24; Agirresarobe-Badiola 30.

EUSKAL.

Iturralde-Reklusa 40; Ziganda-Gaztelu 36. Binakako Txapelketa: Ezkurra-Urko 17; Altuna II.a-Etxabe 40. Zeberio I.a-Txikuri 35; Zalakain-J. Etxeberria 18. Uterga-Etxeberria II.a 25; Iturralde-Ekiza 30.

DEPORTIVO.

Navarro-Fernando 35; Zarraga-Larrinaga 25. Basabe-Imanol 31; Marin-Aierbe 35. Gaubeka-Torre 42; Unda I.a-Beldarrain 45. Ziskar II.a-Ziskar I.a 39; Casado-Garma 40.

GAURKO PARTIDAK

ARRASATE. 17:00 (ETB1).

2. Mailako Binakako Txapelketa: Beloki II.a-Pinedo / Saralegi-Begino. Binakako Txapelketa Nagusia: Xala-Lasa III.a / Olaizola I.a-Ruiz. Salaberria-Balerdi / Retegi VI.a-Medina. **EIBAR. 17:00.**

Atxa-Arroyo II.a / Leiza-Albizuri. Etxaniz-Berna / Capellan-Apeztegia. Haritz-Taberna / Muruamendiaraz-Hirigoi.

NAJERA. 17:30.

Gabari I.a-Zubiaga / Capellan-Nicolas. Lau t'erdiko Txapelketa ofiziala: Errandonea I.a / Salaberri.

GALARRETA. 16:00.

Martinez-Reklusa; Uterga-Amenabar. Altuna II.a-Etxabe; Bitoria-Bereziartua-Aizpuru. Urretabizkaia I.a-Txikuri; Kalonge-Auzmendi. Lezea-Badiola; Iribarren-Mendizabal.

Txapelketako lehen ezustea eman dute Esain eta Beginok

GOÑI II.a-ELKORO **18** **ESAIN-BEGINO** **22**

Iraupena: Partidarena: 66 min. Jokoarena: 32 min.
Pilotakadak: 543.
Saketik: Goñi II.ak bi eta Esainek hiru.
Markagailua: 0-2, 4-2, 4-4, 7-4, 7-6, 10-6, 10-10, 11-10, 11-14, 12-14, 12-16, 17-16, 17-21 eta 18-22.
Bestelakoak: Amurrioko frontoia bete egin zen. Dirua Goñi II.a-Elkororen alde ateratu zen, nabarmen. Ikusleek txaloekin agurtu zituzten irabazleak, eta zenbait txisturekin galtzaileak.

J. Etxeberria | DONOSTIA

Aurtengo Eskuz Binakako Txapelketako aurreneko ezustekoa eman zuten atzo Esainek eta Beginok, Amurrioren (Araba), Goñi II.ari eta Elkorori 22-18 irabazi ostean. Esainek azkenean Begino izan zuen lagun atzeko koa-